



**2014-01-22 eta 2015-12-24 bitartean gertatutako zergagaiei  
APLIKAGARRIA:**

**A) Taldeak bereizten dira kausatzailearekin, dohaintza  
-emailearekin\* edo aseguruak kontratatzen edo hartzen  
duenarekin dagoen ahaidetasunaren arabera:**

I. taldea: Ondorengo ahaideak eta adoptatuak, ezkontidea edo izatezko bikote-laguna, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera osatutako izatezko bikoteak direnean, aurreko ahaideak edo adoptatzaileak. Pertsona adoptatuekin parekatzen dira harrera iraunkorrekiko egoeran edo adopzio aurreko batean dauden pertsonak, eta adoptatzaileekin parekatzen dira familia harrera iraunkor bat edo adopzio aurreko bat egiten dutenak, kasu bietan baldin eta harrera horiek legedia zibilaren arabera eratu badira.

II. taldea: Odolkidetasun bidezko 2. eta 3. mailako zeharkako ahaideak, eta ezkontza bidezko aurreko eta ondorengo ahaideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotetik eratorritakoak barne (anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, aita-amaginarrebak, suhiak, errainak...).

III. taldea: 4. mailako zeharkako ahaideak, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteetatik eratorritakoak barne, maila urrunagokoak eta arrotzak (lehengusuak, koinatu-koinatak, ezkon-ilobak...).

**B) Murrizpenak ahaidetasunagatik:**

**B.1) Herentzietan, legatuetan edo bestelako oinordetza tituluetan:**

I. taldea : 400.000 euro; II. taldea: 16.150 euro; III. taldea: 8.075 euro.

**B.2) Bizitza aseguruetan:**

I. taldea: 400.000 euro; II. taldea: 16.150 euro, eta gainerako zenbatekoaren %25; III. taldea: 8.075 euro.

- Aseguru kolektiboetan eta enpresek enplegatuen alde kontratatutakoetan, aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasuna hartu behar da kontuan.

- Murrizpenaz gozatu ahal izateko, polizan aurreikusitako egoera gertatu baino gutxienez bi urte lehenago hitzartua behar du izan aseguruak, hura modu kolektiboan hitzartu ez bada behintzat.

- Jasotako kopuruak terrorismo ekintzak nahiz nazioarteko giza edo bake laguntzako misio publikoetan emandako zerbitzuak direla medio hitzartu diren bizitza-aseguruen ondorio direnean, 100eko 100eko murrizpena egingo da.

**C) Bestelako murrizpenak:**

**C.1) Gertatzen bada eskualdaketa egin aurreko bi urteetan eskuratzailea eskualdatzailearekin batera bizi izan dela eta etxebizitzaren jabari osoa, usufruktua, jabetza soilak edo azalera eskubidea kosturik gabe eskuratzen duela "inter vivos" edo "mortis causa" modalitateetan, eskurapenak %95eko murrizpena dauka zergaren oinarri ezargarrian, 220.000 euroko mugarekin.**

Elkarrekin bizi izanaren beharkizuna frogatzeko, erroldatze agiria eta epe horretan elkarrekin etenik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, beti ere zuzenbidean onartutako beste frogabide bat erabiltzea eragotzi gabe.

**APLICABLE a hechos imposables devengados entre el  
22/01/2014 y el 24/12/2015:**

**A) Grupos en función del parentesco con el causante,  
donante\* o contratante o tomador del seguro:**

Grupo I: Descendientes y adoptados, cónyuge o pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes o adoptantes. Se equiparan a los adoptados las personas objeto de acogimiento permanente o preadoptivo, y a los adoptantes las personas que realicen un acogimiento familiar permanente o preadoptivo, constituidos, en ambos casos, con arreglo a lo establecido en la legislación civil.

Grupo II : Colaterales de 2º y 3º grado por consanguinidad, ascendientes y descendientes por afinidad, incluidos los resultantes de la constitución de una pareja de hecho por aplicación de la Ley 2/2003 de 7 de mayo (hermanos, tíos, sobrinos, suegros, yernos, nuera...).

Grupo III: Colaterales de 4º grado, colaterales de segundo y tercer grado por afinidad, incluidos los resultantes de la constitución de una pareja de hecho por aplicación de la Ley 2/2003, de 7 de mayo, más distantes y extraños (primos, cuñados, sobrinos políticos.....).

**B) Reducciones por parentesco:**

**B.1) En herencias, legados u otro título sucesorio:**

Grupo I : 400.000 euros; Grupo II : 16.150 euros; Grupo III: 8.075 euros.

**B.2) En Seguros de vida:**

Grupo I: 400.000 euros; Grupo II: 16.150 euros así como el 25 por cien de la cantidad restante; Grupo III : 8.075 euros.

- En los seguros colectivos o contratados por las empresas a favor de sus empleados, tener en cuenta parentesco entre asegurado y beneficiario.

- Para gozar de la reducción, el seguro deberá haber sido concertado, al menos, con dos años de antelación a la fecha en que el evento previsto en la póliza se produzca, salvo que se hubiera contratado en forma colectiva.

- Se aplicará una reducción del 100 por 100, cuando se trate de cantidades percibidas por razón de seguros sobre la vida que traigan causa en actos de terrorismo, así como de servicios prestados en misiones internacionales humanitarias o de paz de carácter público.

**C) Otras reducciones:**

**C.1) La adquisición lucrativa "intervivos" o mortis causa del pleno dominio, del usufructo, la nuda propiedad o el derecho de superficie de la vivienda en la que el adquirente hubiese convivido con el transmitente durante los dos años anteriores a la transmisión, gozará de una reducción del 95 por 100 en la base imponible del impuesto, con el límite máximo de 220.000 euros.**

El requisito de convivencia quedará acreditado mediante certificación de empadronamiento y certificación de convivencia de manera ininterrumpida durante ese periodo, sin perjuicio de la posible acreditación por cualquier otro medio de prueba admitido



en derecho.

C.2) Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten pertsonak eta mendetasun egoeran daudenek (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan murrizpenerako eskubidea ematen dutenek) “mortis causa” egindako eskurapenetan 80.000 euroko beste murrizpen bat aplikatuko da, ahaidetasunagatik aplikatu litekeenaz aparte.

C.2) Adquisiciones mortis causa por personas con minusvalía física, psíquica o sensorial, así como por las personas en situación de dependencia (las que determinan derecho a deducción del impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas) se aplicará reducción de 80.000 euros adicional a la de parentesco.

C.3) Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera osatutako izatezko bikoteak direnean, izatezko bikote kideak, aurreko ahaideek edo adoptatzaileek\*\*, ondorengo ahaideek edo adoptatuek\*\*, edo hirugarren mailarainoko zeharkako ahaideek «mortis causa» eskuratzen badituzte Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergak 27. artikuluan araututako hobaria aplikagarria zaien enpresa individual bat, negozio profesional bat edo entitateetako partaidetzak edo haien gaineko usufruktu eskubideak, eskurapen horiek 100eko 75eko murrizpen bat izango dute zergaren oinarri ezargarrian, betiere eskuratutakoari kausatzailea hil ondorengo 10 urteetan eusten badiote, salbu epe horretan eskuratzailea hiltzen denean.

C.3) Las adquisiciones «mortis causa» de una empresa individual, de un negocio profesional o de participaciones en entidades, así como de derechos de usufructo sobre los mismos, a los que sea de aplicación la bonificación regulada en el artículo 27 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, por el cónyuge o pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes o adoptantes\*\*, descendientes o adoptados\*\* o colaterales hasta el tercer grado de la persona fallecida, gozarán de una reducción del 75 por 100 en la base imponible del impuesto, siempre que la adquisición se mantuviera durante los 10 años siguientes al fallecimiento del causante, salvo que falleciese el adquirente dentro de ese plazo.

- Aurreko paragrafoan aipatutako entitateetako partaidetzak eta horien gaineko usufruktu eskubideak eskuratzen direnean, murrizpena kalkulatzeko, kontuan hartu behar da jarduera ekonomikoa lotutako aktiboen balioaren –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoa gutxituta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren arteko proportzioa; erregela horiek berberak aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan, horien entitate edukitzaileen partaidetzen balioa zehazteko.

- En las adquisiciones de participaciones en entidades y derechos de usufructo sobre las mismas a que se refiere el párrafo anterior, la reducción se calculará teniendo en cuenta la proporción existente entre el valor de los activos afectos a la actividad económica, minorado en el importe de las deudas derivadas de la misma, y el valor del patrimonio neto de la entidad, aplicándose, en su caso, estas mismas reglas en la valoración de las participaciones de entidades participadas para determinar el valor de las de su entidad tenedora.

- Apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako eskurapenari eusteko baldintza betetzen ez bada, murrizpenaren ondorioz ordaindu ez den zergaren zatia eta berandutza interesak ordaindu beharko dira.

- En el caso de no cumplirse el requisito de permanencia al que se refiere el primer párrafo de este apartado, se deberá pagar la parte del Impuesto que se hubiera dejado de ingresar como consecuencia de la reducción practicada y los intereses de demora correspondientes.

- Apartatu honetan jasotako hobaria aplikatzearen ondorioetarako, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren Foru Arauak 27. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen eta beharrezko konplimentuaren aipamena Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena gertatzen den momentuari buruzkoa izan beharko da. Zehazki, 27. artikuluan 3. apartatuko c) leturan aipatzen den baldintzaren konplimentuaren aipamena kausatzailea hil den zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioari buruzkoa izan beharko da.

- A efectos de la aplicación de la bonificación recogida en este apartado, el cumplimiento de los requisitos y condiciones previstos en el artículo 27 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas habrá de referirse al momento en el que se produzca el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. En particular, el cumplimiento de la condición prevista en la letra c) del apartado 3 de dicho artículo 27 deberá referirse a la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del causante correspondiente al período impositivo de su fallecimiento.

C.4) Ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratuak), aurreko ahaideek edo adoptatzaileek\*\*, edo ondorengo ahaideek edo adoptatuek\*\* «inter vivos» eskuratzen badute banakako enpresa bat, negozio profesional bat edo entitate-partaidetza bat, eta horiei aplikagarri bazaie abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzkoak, 27. artikuluan araututako hobaria, orduan eskurapen horrek 100eko 75eko murrizpena izango du zergaren zerga oinarrian, betiere baldintza hauek betetzen badira:

C.4) Las adquisiciones «inter-vivos» de una empresa individual, de un negocio profesional o de participaciones en entidades, a los que sea de aplicación la bonificación regulada en el artículo 27 de la Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, por el cónyuge o pareja de hecho, cuando se trate de parejas de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, ascendientes o adoptantes\*\*, descendientes o adoptados\*\*, gozarán de una reducción del 75 por 100 en la base imponible del impuesto, siempre que concurren las condiciones siguientes:

a) Dohaintza-emaileak hirurogeita bost urte edo gehiago eduki behar ditu, edo ezintasun iraunkorreko egoeran egon, dela erabatekoa dela baliaezintasun handia.

a) Que el donante tenga sesenta y cinco o más años o se encuentre en situación de incapacidad permanente, en grado de absoluta o gran invalidez.

b) Dohaintza-emaile zuzendaritza lanak egiten ari bada, eskualdaketa unetik beretik lan horiek egiteari utzi behar dio eta ezin du jaso lan horiei dagozkien ordainsariak.

b) Que, si el donante viniera ejerciendo funciones de dirección, dejara de ejercer y de percibir remuneraciones por el ejercicio de dichas funciones desde el momento de la transmisión.

Ondorio horietarako, besterik gabe sozietatearen Administrazio

A estos efectos, no se entenderá comprendida entre las funciones



Kontseiluko kide izatea ez da sartuko zuzendaritza funtzioen barruan.

c) Dohaintza-hartzaileari dagokionez, dohaintzaren eskritura publikoa egin ondorengo 10 urteetan, bere esku mantendu behar du eskuratutakoa, eta Aberastasuaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzko abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauaren 27. artikuluan araututa hobarirako eskubidea eduki behar du, non eta epe horretan ez den hiltzen. Halaber, dohaintza-hartzaileak ezin izango du egin erabilpen egintzarik edo sozietate-eragiketarik, zuzenean edo zeharka eskurapenaren balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Entitate-partaidetzen eskurapenetan, murrizpena kalkulatu da kontuan hartuta zer proportzio gordetzen duten elkarren artean jarduera ekonomikoari atxikitako aktiboen balioak –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxitua– eta entitatearen ondare garbiaren balioak; hala behar denean, erregela horiek berak aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukitzailen partaidetzen balioa zehazteko.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, ordaindu beharko dira murrizpenaren ondorioz ordaindu ez den zerga zatia eta bidezkoak diren berandutza interesak.

Apartatu honetan jasotako murrizpena aplikatzearen ondorioetarako, dohaintza-emaileak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena gertatzen den momentuan bete behar ditu abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak, Aberastasuaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzkoak, 27. artikuluan aurreikusten dituen baldintza eta beharkizunak. Dena den, 27. artikulua 3. apartatuko c) letrako baldintza betetzeari dagokionez, dohaintza-emailearen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren autoliquidazioa hartuko da kontuan, hain zuzen ere eskualdaketa egin aurreko lehen zergaldiari dagokiona.

\* Honako hau aplikatzen da 1999-01-01etik aurrerako ondorioekin: **ondasun eta eskubideak eskuratzen badira ondorengo ahaideen edo adoptatuen\*\* alde egindako dohaintzaz edo inter vivos egindako doako beste edozein negozio juridiko erabiliz, eta eskurapen horren aurreko lehen bost urteetan beste ondorengo ahaide edo adoptatu batek aurreko ahaide edo adoptatzaile\*\* baten alde eskuratu baditu ondasun edo eskubide berberak dohaintzaz edo inter vivos egindako doako beste edozein negozio juridiko erabiliz, eskurapen hori lehen dohaintza-emaileak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasuna kontuan hartuz zergapetuko da.**

\*\* **Pertsona adoptatuekin parekatzen** dira harrera iraunkorreko egoeran edo adopzio aurreko batean dauden pertsonak, eta **adoptatzaileekin** parekatzen dira familia harrera iraunkor bat edo adopzio aurreko bat egiten dutenak, kasu bietan baldin eta harrera horiek legedia zibilaren arabera eratu badira.

de dirección la mera pertenencia al Consejo de Administración de la sociedad.

c) En cuanto al donatario, deberá mantener lo adquirido y tener derecho a la bonificación regulada en el artículo 27 de la Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, durante los 10 años siguientes a la fecha de la escritura pública de donación, salvo que fallezca dentro de este plazo. Asimismo, el donatario no podrá realizar actos de disposición y operaciones societarias que, directa o indirectamente, puedan dar lugar a una minoración sustancial del valor de la adquisición.

En las adquisiciones de participaciones en entidades, la reducción se calculará teniendo en cuenta la proporción existente entre el valor de los activos afectos a la actividad económica, minorado en el importe de las deudas derivadas de la misma, y el valor del patrimonio neto de la entidad, aplicándose, en su caso, estas mismas reglas en la valoración de las participaciones de entidades participadas para determinar el valor de las de su entidad tenedora.

En el caso de no cumplirse los requisitos a que se refiere el presente apartado, deberá pagarse la parte del impuesto que se hubiere dejado de ingresar como consecuencia de la reducción practicada y los intereses de demora correspondientes.

A efectos de la aplicación de la reducción recogida en este apartado, el cumplimiento de los requisitos y condiciones previstos en el artículo 27 de la Norma Foral Norma Foral 10/2012, de 18 de diciembre, del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas por parte del donante, habrá de referirse al momento en el que se produzca el devengo del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. No obstante, el cumplimiento de la condición prevista en la letra c) del apartado 3 de dicho artículo 27, deberá referirse a la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del donante correspondiente al periodo impositivo inmediato anterior al de la transmisión.

\* **Con efectos de 1-1-99 la adquisición de bienes y derechos por donación o cualquier otro negocio jurídico a título gratuito e intervivos a favor de descendientes o adoptados\*\*, precedida de otra adquisición de los mismos bienes o derechos, realizada dentro de los últimos cinco años inmediatamente anteriores a la citada adquisición, por donación o negocio jurídico gratuito e intervivos, a favor del ascendiente o adoptante\*\* y realizada por otro descendiente o adoptado del mismo tributará teniendo en cuenta el parentesco del primer donante con respecto al último donatario.**

\*\* **Se equiparan a los adoptados** las personas objeto de acogimiento permanente o preadoptivo, y a los **adoptantes** las personas que realicen un acogimiento familiar permanente o preadoptivo, constituidos, en ambos casos, con arreglo a lo establecido en la legislación civil.